Otsalla-Febrero
1
Egubena - Jueves

Bilbao, 1934

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA
..bao'kua... ... 6,00 irko. Iru ilez
Bilbao'atazkua 7,50 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 100,00 " "

Beldayen itunduba

XXII urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.° | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 6.600 zenbakija

Egunekua

Beste urteurren bat

Gaurko urteurena ezta il-urteurena, bixitza urteurena baño. Gaurko urteurena, irakurle, EUZKADI izparingi onen XXI urteurena da, ba.

Izparingi jeltzale au Jayo zan urtia, 1913'gko. otsalan 1'gko. eguna ixan zan.

Eta orain 21 urte lenengoz argiratu zan izparingi jeltzale onen lenengo zerendan irakurten diran itzak, onixek dira: "Eldu da gure eguna".

Eta burutzat idatziriko lero onein jarai, beste lero oneik datoz: "Gaurko egun au pozkarija da, ta gogoragarija ixango da, euzkeldunentzat. Gure euzkera mate-mate onek bai-dauko gaurtik aurera nun agertu egunero, euzkeraz idatzi ta euzkeraz irakurteko egari diran euzkeldun zintzuak, bai-dauke nun asetu gaurtik aurera euren egari aberkoi ori; eurerakada andija da gaurkua geure bijotzetako ele edo berbeta onentzat."

卐 卐 卐

Gorago irakuri ixan dozubezan euzkerazko leruok "Kirikiño" izparingi onetako lenengoko euzkel-idazlia ta euzkel-idazlien artezkarija ixan zanak idatzijak dirala jakiteko, eztot uste esan biarik ixango dozubenik, jeltzalion izparingi onek jayokeratik ixan eban euzkel-idazlia, "Kirikiño" ospetsuba ixan zana, Euzkadi gustijak dakijana da-ta.

Emen beridatzi doguzan leruok baño geitxubago dira "Kirikiño" yayuak izparingi onen lenengo ingoskijan idatzi ebazan leruak. Arek idatzi eban gustija beridatzita zubei erakustia, baña, biarba idazki au lar luzetuteko bidia zabaldutia ixango litzateke.

Beraz, azketsi, irakurle, ta ordez otoi bat "Kirikiño" zanari (G. B.).

卐 卐 卐

EUZKADI izparingijaren lenengo zenbatiko lenengo ingoskijan, Arana-Goiri'tar Sabin'an argazki eder bat ikusten da, ta bere onetan euzkeraz idatziriko lero oneik: "Aberija'ren gaizkakundia aldeztuteko argitara datoren ordu onetan, EUZKADI izparingi egunoroko onek pozik egiten dautso bijotzetiko agur sutsu-sutsuba Arana eta Goiri'tar Sabin'aren Jel-alderdijaren irasle ta euzko-erija'ren gazkatzaliaren gomutagarijari".

卐 卐 卐

Jayo zan eguman onen ederto berbaz iñarduten ekijan izparingijak, arezkeroko 21 urtiotan ikasi ixan dabenaz, edonoren aurera bape bildur barik aurkeztuteko eran aurkituko dana, ezpai bako egija dalata gagoz, gaur 21 urtera eldu dan euzko-gudari onek, gaurarte areyuakin ixan dauzan ezpayetan alantxe erakutsi ixan dausku beti-ta.

Guda-arora eldu danian daukoz, bariz, onek, ezpairik garatzenak ebazteko, gudaketarik gogorenak egiteko.

Euzkadi aberijaren areyuak, asko dira, ba, asko ta txarak, dolorak eta zitalak... Eta era onetako areyuai atzerantz eragiteko, euzko-adoria biar da; euzko-adoria ta euzko-gogua be bai, bata gaur 21 urtera eldu dan izparingi onen gastetasuna be.

Gaur orniduten dauzan 21 urtion barruban, ¡amaikatxu esturaldi ta jazarpen jasan biar ixan dauz izparingi onek! Goikua 'ri eskarak, baña, gustijetatik garale urten ixan da.

Orañarteko gustijen azkarija, baña, oingoxia dala dirudi, esker ta eskoi, aure ta atze, lau aldietatik areyoz inguratuta aurkitzen dan aldija oraingo aldi bakan au da-ta.

¡La! alderdijetako areyuak gotu ta garale urtengo dala? Alan uste dogu, egijagaz dabilanaren aldezlia, Goikua ixaten da-ta.

Eta Jel egijagaz soin bat eginda eztabilanik iñok ezin esan leike, Jaun-Goikua eta Lagi-Zara, iñok guzurtitu ezin leiken egija da-ta.

卐 卐 卐

Atzo, irakurle, "Kirikiño" il zaneko boskaren urteurena zala giñuan.

Gaur, ostera, EUZKADI izparingija jayo zaneko ogetabakaren urteurena dala.

EUZKADI'ren lenengo zenbakiko lenengo zerendara gure euzkera edera eruan eban lenengo euzkel-idazlia, "Kirikiño" zintzua ixan zan. Eta 16 urtian ainbeste euzkel-idazle bari izparingi onetaratu ebazan zuzendari artezija baxen begikua be, bera.

Guzurtauko gaitubezaneko bildurik barik esan geinken egija, auxe da: izparingi onen Euzkel-Atala'ko ingoski osuaren ata, "Kirikiño" matia dala.

Orduban euzkeraz idazten azartuten ziran idazliak, gitxi be gitxi ziran; eta gitxi be gitxi ziralako, ingoskijaren laurentxuba be, saritan, etzan betetan.

Gaur, ostera, idazten dan gustija argitalduko ba'litz, ingoski bi be gitxi ixango litzakez, urian.

Ugaritasun onen ata "Kirikiño" da, berak ain mate ixan eban izparingija 16 urtera elduko zan baño egun bat lenago donokiratu yakun euzkeltzale sutsuba.

"Kirikiño" ta EUZKADI izparingija soin baten zatijak ixan bai-litzazan beti alkaregaz bixi ixan ziralako-edo, euren era bardingeko urteurenak be alkaren jarai dabiltz: bataren il-urteurenaren urengo, bestiaren jayotza-urteurena da, ba.

Goyan bego, "Kirikiño", ta beyan EUZKADI'ren bixija luzetu bedi.

URIBITARTE'TAR IBON.

Beltxerana

¡Oi, orek begi baltzok,
ene beltxerana!
tinka-egiten nabe,
tinka-zeuregana.

Sugiaren begijak
txorijari antzo
nire ikusmena oro
jarten dauste lauso.

Agin zurijak dozuz,
gorijak ezpanak,
ta oñak bai politak,
polit eta ariñak.

Eta iripar-kirkira
leunagorik ete?
Zoragari zarala
danak uste dabe.

Lore-ori orleya
paparean txairo
daroyazu; bai, mate,
eruan betiro.

Orlegi dan marguak
bai-damost kemena,
margo orek ikurtzen dau
ene itxaropena.

Poztu nire bijotzau,
ta bai bestienak;
osatu, matasunez,
zauri minkorenak.

Argitu niri bixitz
-biderik onena:
¡ez aztu iñoiz ene itzok,
begi beltxerana!...

ENDAITZ.

Beltxerana: morena.

"Yakintza"

卐卐

Bigaren urte-barna dogu. Aldizkingi ori begiko yaku, azalez ta mamiñez jori ta txakun datorelako. "Aitzol" azkarari zor yako bere jayotza. Urte oso bat iraun da eta amaikatxu idazlan gorengo emon dausku. Ara bere azkenengo auki-bidia:

ELERTI-LITERATURA
Azkue (R. M.).—Aita Manuel Laramendi'ren.
Jauregi'tar Koldobika.—Legortea.

ANTZERTI-TEATRO
Rabindranath Tagore.—"Amal", Sabiagak euzkeratuak. (Jaraitzea).

IRAZKINTZA-PEDAGOGIA
Bonifacio de Etxegarai.—Vehículo lingüístico utilizado para la enseñanza en el Pas Vasco.

LEGE-YAKINTZA-LEGISLACION
Aniceto de Olano.—La propiedad comunal del Batzan.
Azurza'tar Kepa Josu (Abaraska).—Euzko lege ikaskuntza.

EDESTI-HISTORIA
Fausto Arozena.—Episodio con honores de acontecimiento.
Martín de Angiozar. — Los vascos en 1800. Tipos bizkainos.
Fray Eusebio de Etxalar.—Voces vascas en monumentos romanos.
Angel de Zabala.—Los gobiernos militares.

GIZARTIZTI-SOCIOLOGIA
Joaquín Azpiazu.—Unión interfederal en el País Vasco de trabajadores católicos (onclusión).

ERESERTI-MUSICA
Padre Donostia.—Apuntes de folklore vasco.

ACCION CULTURAL
Actividades de Euzkeltzaleak.
Bibliografía.

GRABADOS
Tipos bizkainos del siglo XIX.

Aldizkingi oren jaube ixan dabenak eskatu begije: Diputación Provincial, Euzko-Ikaskuntza, Donostia.

Asmo barijak, be, atzalduten dauskuz azkenengo zenbaki onek. Beriala agertuko dira Lizardi'tar Jabier'ixan zanaren "Itz-lauz" deritxon idazki edera. Gero Rabindranath Tagore olerkadi-idazle ospetsubaren "Amal". Sabiaga azkarak euzkeraldu dausku. Eeta azkenez euzko-Olerkijak. Uretxua'n lenengo sarija lortu ebenaz batera.

"Yakintza" ren barurijan amaikatxu asmo bikain sortzen dira.

Zorijonak artezkari ta idazliai.

Euzkotar umien aldez

"Ara nun diran,
Gure mendiak
Ara nun diran
Gure zelayak."

Iparagire.

Nere ikastolan gertatutako gauza it un bat edestera nua.

Egun batean Bizkai-Aldundiko gizon bat etori zan nere ikastolara eta umiai galdetu zioen: —¿Bai aldakizute mendia zer dan?

Eta nere umeak: —Bai, jauna.

—Ia esan egidazuez ba mendi batzuen izenak.

Nere ikastolako umeak asi ziran eurak ezagutzen zituzten mendi batzuen izenak aitatzen: Gorbea, Anboto, Udala, Oiz, Ganekogorta, Bizkargi...

Eta aldunak erderaz arantzaka "ez, ez, oyek ez, Cordillera Carpeto-Vetónica, Cordillera Oretana, Cordillera Mariánica..." umiak kirtenkeri ikaragari bat esan bai zuten bezela.

Edo nere ikastolako umeak, Bizkai-baserietako seme alabak izanik, goizian jaikitzen diranetik gabean oeratu artean euren begien aurean dauzkaten mendien izenak jakitea baño, iñoiz ikusi ez dituzten, eta ikusiko ez dituzten Andalucia'ko Sierra Morena ta Sierra Nevada mendien izenak jakiten bearagoa bai zuten bezela.

Edo nik, euzkotar irakaslea izanik, neure Aberiko mendi tontor maitien izenak, euzkotarok ainbezte maite ditugun mendi tontoren izenak, Euzkadi'tik at geranean ainbeste oroitzen ditugun mendien izenak, atzerian gabiltzaneak beti biotz begietan ditugun mendi eder maitegarien, izenak, euzkotarok euzkotar izaten ainbeste lagundu diguten mendien izenak umiai erakustea gaizki egin bai nuan bezela.

Edo guk euzkotarok, geure Aberiko gauzak, ain agirian dauden gauzak (¡zer da geure mendiak!), ezagutzia obena bai litzake bezela.

Noiz arte ikusi bear ditugu onelako gauzak gure ikastoletan?

Noiz arte jasan bear degu gure umeak, euzkotar ume gaxoak, irugaren edo laugaren malako umeak ba'litzakez bezela erabiltea?

Jayo ete da edo ezagutuko ete degu gure ikastolak azkatuko dituan gizona gure umetxoak, ume eskubidien babespean ipiñiko dituan gizona?

Gauza gogora da gero, ta ikaragaria gure umeak Turquia'ko umeak eta mahomataren umeak baño eskubide gutxiago ikastolan izatea.

Guk, euzkotarok eroapen aundia degu izan ere. Aundiegia noski. Augaitik egin dizkigute ta egiten dizkigute orenbezte destaña.

Ni neroni iñor ez naizan aren gogai bat askotan sortu zait buruan eta ementxen esango det

Bai ditugu gaur egunean geure artean len ez ginduzen Bazkun asko, esaterako Euzko-Ikazkuntza-Batza, Donostia'ko Euzko-Pizkunde ta Euzkaltzaleak, Bilbao'ko Euzkeltzale Bazkuna ta onelako Bazkun abertzale ta jakintzadunak.

Ain zuzen "Yakintza" izendun aldizkingi ederak beti ekiten dio Ume-izti gayari.

Eta geyegikeria ete litzake Bazkun aberi Euzko-Ikaskuntza-Batza'ri batez ere, gure ikastoletako umien alde zerbait alegindu dedila eskatzea?

Gure ikastolak esaten detanean Gipuzkoa ta Bizkai'ko Auzo-Ikastolak esan nai det, laterien ikastoletan, gaur beintzat, ezer eskatzea alperik da ta.

Eta aitatu ditudan Bazkun oyek Gipuzkoa ta Bizkai'ko Aldundiari bear dan eraz, Auzo-Ikastola oyetan geure gauzentzat eta geure gayentzat leku bat eskatuko ba'lebe, ez ote leukie ezer iritxiko?

Nik ez dakit baña bai leike len orenbeste eskatuta egotia ta ezezetzko zorotzen bat artuta auerantzian ezer eskatzeko gogo gabe geldituta egotia.

Baña al dezutenok, ez al zerate ba geure umetxoen alde igituko gure ikastoletan onelako negargarikeririk ikusi ez dagigun?

ARITOKIETA.

Kistar Irakasbide - Astia

Areñegun ixan ziran itzaldi-salan gorengo iduri yakun Ibargutxi jaupari argijarena. Idazle aipagari au ezta goralduba ixan biar dan neurijan beintzat. Kistar Irakasbide-Astia'n, ba, erakusten emon dau bere trebetasuna. Ibargutxi jaunaren odoipenak ziran sakonak eta bere tzak ziran leunak. Aretua beterik zan, jauparijak eta emakumiak nagisi zirala. Jaupari agurgarijak gai auxe erabili eban: "Idazti deuna ta liturgia kistar ikasbidian".

Ondo atzaldu euskuzan idazti deunen onurak, baita Eibar'en egin daruana, be. Josu'k esandakua, egindakua eta erakutsitakua zelan gero esan euskuben umiok.

Zorijonak Ibargutxi jaun agurgarijari. Gotzain jaunak euzkeraz itz-egin ebazan geure bijotzak ondo poztuten ebazalarik. Irakaslia ta umiak onetsi euzan azkenean.

Kistar - Ikasbide - Astian onetan gorengo itzaldijak entzun daruaguz, baña euzkerazkuak eztira azkenenguak, lenenguak bañi. Zelaya eta Ibargutxi jaunak badakije zer dan euzkerea eta gai sakonak darabilez ele eder oretan. Goraldu daruagun jaun bijok.

tzen dala, eta orelako abertzaleak, abertzale erdie bañan ez dirala...

IGAZKO URTE GORA BERAK. — Eri onetan igaz izan diran gora berak onexek dira: Jayotzak, 24; ezkontzak, 14 eta eriotzak gazte ta zar, 14.

DABILTZANAK. — Deuschland'en egun batzuek igaro ta etori da. Larañaga'tar Gotzon, aberkidea. Ongi etori.

—Gure artian egun batzuek igaro ta Nabara-aldera juan da Larañaga'tar Iñaki, apaizgazti jatora.

GEXORIK.—Gexorik arkitzenda, Erauskin'dar Joseba Jokin. "Argintzau" basetxeko gizona. Laster osatu.

IZPAR BELT*AK.—Ikurton Deunik eta Doipururen onespena artuta Bel-Loc'en (France) il da bere biziko 63 urtekin, Gracy'tar Iñaki, gure eriko Bedita Deuna'ren lekaiden Gotzaña (obispo). Izpar onek, Lazkao guzie itunez beterik utzi dau. Lekaidien eleizan astelenen, bere gogo alde egin ziran eleizkizunetan notin asko batu zan, orela erakutxiaz bereganako maitasuna.

¡Goyan bego! Gracy'tar Iñaki jauna, eta otoitz irakurle bere gogo alde.

—Baita ere .. dira. Izagire'tar Iñaki eta -idazketari zara eta Beobide'tar Mikele "Torez-il,,'go etxekoandre zara. Nere samin agura sendikoai. (G. B.)

JAI-ALDIA.—Au eguraldi onakin bukatu degu txistulariak opor egin zuten. Atsaldean Eleizan "Los pieles rojas" ikurkin (película) polita bota zuten.

ELEIZKIZUNAK.—Astelenen goizeko 8'tan eriko ildakoen gogo aldezko eleizkizunak izan dira.

OPORALDIA.— Aspaldiko gure eriko idazlien oporaldia ez da makala. "Aldatpe", "Kuku", "Gazte-bat", "Elordi" eta abar, nundik nora zabiltzate oren ixilik?

¡Lazkao'tara! Idiakez'ekin ez aztu.

IRAMENDI.

GAUTEGIZ-ARTEAGA

Abertzaliek asko dirala danak esaten diben gauzea da, baña abertzaletasuna bere baruban, eta abertzale-ixaten dakijenak euren egikixunetan, gitxi diraena be askok esaten daben gauzea dala, ezin ukatu leike. Eta olan ikusten dogu batzubekaz emen onetan be.

Aurpegi bi daukozan abertzale bat eta beste ikusten da emen, be eta euron artian "Basorde" asteroko "Euzko" izparingijan eri ontatik idazten dabena. Biar bada etira uartuko izparingi oretako artezkari eta bestiak be, baña egija da, auretik itzera onagaz, abertzalian aurka bere idazki geyenak dirala.

Abertzale buruba-egin, baña abertzalien aurka idatzi, abertzale alderditik at-egon eta bein batari eta bein bestiari "pastela" egiten dautson gixona, eztot uste, abertzale zintzua ixan leikenik.

Nok esan deutzu, "Basorde", txadon-atzeko antxokijatzaz eri onetan dagon etxeta-baida, txaunburuba abertzalia ertaldala? Ala zuk eztakixu ondo zergatik dan? Eta ondo jakin-ezkero ¿zergatik gure esan?

Eta ¿nok urtengo dau garale? diñozu. Ez, zuk uste dozun lez, margaritak; abertzaliak baño. Eta orain abertzalionatzaz jakin biar dozu, txadon-atzeko aretuak buruko-min gitxi emoten dauskula; bada orain areto edera daukogu abertzaliok be antzerkijak egiteko, eta laster egingo doguz. Eta beste areto oretzaz Udalak jakingo dau zer egin biar daben. Oraingo "pastelak", uste dot, mingotsak urten deutzubela zuri eta margarita gustijoi.

AGATE DEUNAREN ABESTIJAK.

Beste orenbeste esan geinke arazo onetan be. Euzko-Gastediko gastiak epeldu ezik alegin asko egiten dabiltzaz margaritubok eta batzuk erdiz-erdizkan ipiñi dituezen bezela, entzun dot. ¿Zer da mutilak? ¿Orelako zaratak ikeratu egiten baizatubez, ¿zer ikusi aurera jaratu Euzkadi azkatu-arte? Euzkadi abertzaliok. Ezin ibili geinke abertzaliok. Ezin dizka ezin ibili geinke abertzaliok. Ebiltzan, ixan, edo ez ixan; baña ba gara ezbildutu... Txakur auzilarijak ainke gitxi...

Min emoten dautsela Euzko-Gastedijak abestijak aldra ederak Agate deunaren abestijak? ¡Zer egingo deutsagu ba! Gure euzkotaron gauzea da eta ez atzerrizale margarituana. Eta geure etxian, geure oiura zarak, be, galazo egingo ete dauskubez? Arteaga'ko margarituen onduan Oriol txiki gelditzen da.

IPARKARIA.

TXARRI-ERAILKETA

Garate'tar J. M.

Negu erdiko goxalde atan, amets goxo baten bidez, udabariko girorik ederenean, txukun eta, edergaiz orniituba ikusi neban geure aberi bakara dan Euzkadi matia: ametsok buruban neuzala, oetik jauzkieran eguzkijaren ure-beintzarik etzan agiri leyo zirikitubari, ezta entzun be zozo ta birigaruen abots goxorik, etxe - aureko arte-abaretan, eta ain gitxi, kuku abesti pozkorik, etxaburuko zugaztijan. Oldozpenok goiburu nebazala kortaratu nintzan da, euli burundadarik etzan-aren abel-gorijak lepoko uliak zutun-samar eukiezan.

Bai umedunak esne-uri egozan-aren, goxaltzeko biar zana jasteko txa ri mustau erazo ondoren titi-egari zan-aren, arto-mutxikin batekin atzipeturik tokiratu pitxar bete esne jatsirik, azpijak egin, yaten emon eta atarira urtenebanagaz batera iges eustien, amesetan ikusi neuzan, lora-mitxeleta, txori, ugarasijo, ta enparau gustijak, euren abots goroko abesti pozkor da gusti: Ain eder aurteztu yatan geure aberija eze, ezin asperu nintzan, zerutik yatsiriko kiru matara bigunakaz eunduriko zapi zuri ederez jantzirik egozan, Akaregi, Amalozur, Arantzamendi, Legarmendi Epermendi, Txinduri, Alende, Kalamendi, Zabalmendi, Eizmendi, Ateunmendi ta Uregaraiko' atxurdin txukuneri begira. Solo ta beratzak, goxotegi aundijak irudijen, etxe kapelaren odi-espanetako durtintotxuak leyarturik, tximist-argontzi nagosijen birako leyar zirzilak irudijen. Erberako etxietan ixioturiko subaren kezurijak, keodijak gora, zuzen juazan donokirantz.

Onetan neguala, ariñeko baten, eldu yatan Pepe Azkartza ta. Zer dok mutil, esan neutson, txapel okerak dozak atzetik? Ez. jardetsi eustan, Txomin Mugartein-bilena yatok; Jose Ibera'ri detu jautsagu txarija erailtera, ta, alegiñak alegin egin yozak baña, ezelan be ezin yok erail.

Beingo baten Txomin lagun ebala jeurt egiñik artu eban etxerako bidia baña, Azkartza'ra ziraneko, aizkora dorubakaz jo buruban da, erailik eukien, aureko eberditik, naita ez, doibatzaren agindubetarik at, berau egiñiko txori gaxua.

Etxanderiak be, ganoraz garbituta eukazan odola, gan..ak guntzurunak, da, enparauko barukijak jasoteko biar ebazan ontzijak, da, baita bere, odoloste gozuak egiteko biar-biareko diran, oregano, kipula ta ganerako gauza gustijak.

Goxekua artuta gixonok gertu ziranian, Petratxu alaba bakarak bijotz auskora eriki edo, irintzarik ez entzutiaren, iges sapaira ta, lastopian ostendurik, ordu-erdiren bat igas orduban, arezkero erail ixango ebela ta, urten ei-eban baña irintzi larijak entzunik, jeurt lengo tokira ta, ezeveban urten bederatzijak arte, iru ordu lastopian egiñiko neskatileak.

Lenengotik detu ba'leutse Txomin Mugartei'ri edo, astapotxako Iñaki Antoni, txeri bat erailteko, ez ebien ixango aizkora biarik; da Petrak be, ez ain luzaro lastopian egoteko premiñarik; mutil onak zuazan ba eural- lan oretantxe.

"Perkain" París'en

卐卐

París'eko Antzoki nagosi baten antzeztu dabe euzko - antzerki ereskidetuba. "Perkain" deritxo. Euzkotarak egungo gara edo modazko. Baona'ko gora-berak bide-edo. Tira, ba, Stavisky etzan geutarra.

"Perkain" antzerkijaren irugaren atalan antzeznotin batek esan biar dau: Iges guazan geure eriko espetxera.

Baña antzeznotiñak beste itz auxe esan eban:

Guazen, arinka, Bayona'ko espetxera.

"Villa Chagrin" edo Bayona'ko espetxiak dedu edo entzute andija dauko. "Perkain" oni arera ona egin ei-dautse París'tarak. Zorijoneko gara...

Erantzuna

卐

"Dictionnaire basque-français" nun saldutén daben itaun-uten dozun ori, erantzun au buakixu. Lhande abeak egin eta Beauchesne, París'ko irarkola nagosijak ager-arazten daun iztegi ori atalez-atal dator.

Seigaren atala irarkolatik ateratzeko zorijan dagoz.

Lande abeak bere sala jaraitzen dau bi euzkal-irakasle gasteren laguntzaz, Uztaritz'ko Lafitte eta Aranart jaupari argijakiz alkartu ta. Laburdi, Benabar eta Zuberoa-aldietako elia ezagutu nai dabenentzat garantzi andija dauko.

Ara saneurija: Atal bakotxa: ogei franco.

Zuzenbidia: Beauchesne, 117, rue de Rennes, París.

Onen bestekin, zeure otsein gagoz.—L.

Errijetatik

MUXIKA

ZAINDARI-EGUNA. — Eri onetako Zaindarija Bingen Ziñopa Deuna da ("San bixenti patroie" esan daroe) Zaindari onen omenez ila onen 22'an goxeko amarderdijetan asi zan jaupa nagusija; Zalo-etxebaria'tar Kepa jauna jaupagile eta esker-ezkuma, Iza'tar Toma eta Monasterio 'tar Paul jaunak laguntzale ebazala. Jaupea, bertoko abeslarijak abestu eben. Zalo-etxebaria'tar Jon jaunak, "Ave Maria" oso ederto abestu eban, Ojanguren jauna Txauneskindari zala. Txonitzaldija, Iturraran jaupalburu jaunak egin euskun. Zaindarijaren bixitza atzaldu ondoren, beren antzekuak ixateko zelako bixitza egin biarko genduan esanaz. Jaupea amatu ta Zaindari-gorpuskiñari mun-egin ondoren "Arana'tar Sabin Enparantzea,,'ratu giñan Muxikar Euzko-Batzokija'ko ezpatadantzari barijak ikusteko. Oneik beriala enparantzaratu ziran biribilketa alayan, Uribe'tar Koldobika eta onen anaya Tomatxu 8'urtedun mutiko begikua, auretik zoñulari ziralarik, eta ezpata-dantza, makil-dantza ta abar, uste gendun baño askoz be obeto egin be. Au dala-ta txaiotuak ixan ziran Ariatzatar txistulari ta ezpata-dantzarijok.

Aratsaldian b 'iro 4'etan egin ebezan euren dantzaketak, eta goxian baxen ondo edo obeto.

23'garen goxeko 10'etan asita Gokaxo-aldezko eleizkixuna, jaupa osteko auresku ta aratsaldian Eleiz-Gastedijakuak eralduteko bildots-zozketea ospatu ziran; 759 'ko zenbakija eukana bildotsaz jaubetu zan.

Muz-txapelketia: 24'garenan, "Sanbixenti irugarenan" urtero lez, jokatu eben 16 muslarik, nortzuk txapeldun ixan; 15 'en artian erosi eben txarikume eder bat, azkenengo irabaztzale geratuko ziran bijentzat ixatekotan. Gernikar batzuk be ba-ziran txapelketan muxikarak baña... muslari ontxuak ixan be-ta... txapeldun urten dira.

Gernikarak ez-eben
Usterik galtzeko...
Baña ¿nok gotu gure
"Peran" ta "Etxeko"?

Zuru-murua zabaltzen asi da... txapelketako txarikume ori ondotxu asita loditzeko asmua dabela, datoren urteko "eriferako" gernikarai saltzeko; ¿egija ixango ete-da?

GEXORIK.—Uruburu'tar Eraimun ogeratuta aurkitzen da, gripe edo dalakuaz. Sardui'tar Erupin eztari-min edo angiñakaz; Zendagorta'tar Erose Elexakuak artuta. Algustidun Urtzi Osalari Gurenak osatu bediz alik ariñen, Bere naya olan ba da.

E.'TAR K.

卐 卐 卐

EUZKEL-IXENA.—Eri onetako Bilbao'tar Koldobika ta Aribaltzaga'tar Luke senar-emaste zintzuak, semetxu eder bat ludiratu dabe. Eta ugutzan, Sabin euzkel-ixen begikua ezari dautse.

Jayoparitxu au besuetan artu ebenak, Galartza'tar Bitor eta Aribaltzaga'tar Jone ixan ziran. Zorijonak guraso ta arabitxi-amabitxijai.

EZKONTZA.—Igazi dan larunbatan, Luno'ko txadonan, ezkontza bat ixan zan. Eta bertan ezkondu ziranak, bariz, Zendagortza'tar Josu ta Zarakondegi'tar Tome neska-mutil b ..ikuak ixan ziran. Zorijonak zubei be.

JUN-ETORIJAK.— "Fito" ixontzitik etorita dagozala emen agurtu doguz Zugadi'tar Jon Joseba, Beaskoetxea'tar Jakinda, Auzokua'tar Gilelma ta Baroeta'tar Baleren abertzale begikuak.

Bilbao'tik etorita, Ugalde'tar fferman, eta F. Uribe'tar Andoni.

Ajuria'tar Justa ta Ajuria'tar Kepa anayak, euren gudaritzea betetan Ferrol'era juan dira.

Ondo ibili atzeri-alde oretatik, baña Euzkadi'gaz bein be aiztu barik.

OSATEBAKUNTZA. — Beaskoetxea 'tar Gergori, bere osatebakuntzea egin ondoren, gustiz osatuta geure arteratuta aurkitzen da.

Geure adizkide ta auzokide bat oretara osatuta ikustiagaz, asko poztuten gara.

IKASLE BAT. (1)

(1) Ederto "Ikasle", urenguan be idatzi, olango idazki laburak eta izpartsubak pozik argitalduko yatzuz-eta.

"Txindor-Kumia" Bilbao'ratu zanik, zure uar berezijan irakuri arte, ezkenkijan. Udabarirarte oba eukian etori ezpa'litz, abijatxutik urtenbari diran kumetxubak Bilbao'ratuteko, neguba, aldirik aukerakuena ezta-ta. ¡Egun otzak ixaten dira, gero, emen...!

LAZKANO

IGAZ EUZKEL-IXENAKIN UGATZATU ZIRAN AURTXOAK.—Agire eta Larañaga'tar Jon Andoni. Estala eta Segura'tar Miren Edurne. Ibarlaburu eta Baztarika'tar Miren Iziar. Armendariz eta Goikoetxea'tar Koldobika. Begiristain eta Auzmndi'tar Jon Iñaki. Larañaga eta Irizar'tar Iñaki. Insausti eta Ayerdi'tar Miren Edurne. Estala eta Aratibel'dar Ane Miren. Insausti eta Garin'dar Jon Ander. Agire eta Az'koitia'tar Miren Josune. Ayestaran'dar Miren Karmele eta Mendia'tar Edurne. (Azkeneko bi emakumetxoen, amaren abixenik ezdakit, barkatu.)

Aurtxo oyen guraso jatorak artu duten bidea, euzkeldun abertzale guraso guziak jaraitu bear dutena da, bañan... oretzaz gañera gure ele bakara dan euzkerea erakusten, sayatu bear dute. Euzkel-izendun askotxo erderaz jardun edo mintzatzenda, gaur, eba jakin dezagun euzkel izendunak erderaz mintzatzea itxusikeri aundia dala, eta baita ere jakin beardegu, erderaz mintzatzean gure elea (idioma) ostikope-

Jesús Ostolaza
BERGARA

FABRICA DE INSIGNIAS
DE ESMALTE FINO
AZALIRARRI MIEZKO
IKURRIÑEN OLEA

TXIKORO (ACHICORIA) BAKE

EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA

Irakurri EUZKADI